

/2022 Foru Aginduaren proiektua, (e)koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena, zeinaren bidez luzatu egiten baita zerga-aitorpenak eta -autolikidazioak aurkezteko eta ordaintzeko epea (berez, 2022ko apirilaren 20a izanen litzateke azken eguna).

Zerga bakoitzaren araudiak ezartzen du zein epetan aurkeztu eta ordaindu behar diren hari dagozkion aitorpenak eta autolikidazioak. Oro har, aitorpenak eta autolikidazioak aurkezteko epea, eta, hala badagokio, aitorpen eta autolikidazio horietatik ateratzen diren zenbatekoak ordaintzeko epea, lehen hiruhilekoari dagokionez, apirileko lehen hogeitun egun naturalekoa da. Hala da urtarrilari dagozkion zerga berezi batzuen kasuan ere.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren urriaren 18ko 114/2021 Foru Aginduak aldatu egin du 80/2008 Foru Agindua, apirilaren 23koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena, zeinaren bidez hein batean garatu zen Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamendua, zergen aitorpen-likidazio edo autolikidazio batzuei dagozkien ordainketak bankuan helbideratzeari dagokionez; aldaketaren xedea izan da aukera ematea ordainketa borondatezko epe osoan zehar helbideratzeko. Horretarako, kendu egin da helbideratzea borondatez ordaintzeko epearen azken hiru egun baliodunak baino lehen soilik egiteko baldintza, eta, 2022ko otsailaren 1etik aurrera aurkezten diren aitorpen-likidazio eta autolikidazioetarako, orain onartzen dira Nafarroako Foru Ogasunari borondatez ordaintzeko epe osoan zehar jakinarazitako helbideratze-aginduak.

Aurrekoaren arabera, ordainketa autolikidazioak aurkezteko epearen azken egunera arte helbideratzea posible izanen den lehen hiruhilekoa da 2022ko lehen hiruhilekoa, eta epe horren azken eguna da 2022ko apirilaren 20a. Berrikuntza horren ondorioz, segur aski igo egingen dira epearen azken egunean aurkeztutako autolikidazioak, eta, gainera, aurten Aste Santua data horietatik hurbil izanen da.

Horregatik guztiagatik, egokitzat jo da, salbuespenez, aitorpenak eta autolikidazioak aurkezteko eta ordaintzeko epea luzatzea; berez, 2022ko apirilaren 20an bukatu beharko litzateke, baina 2022ko apirilaren 25era arte luzatuko da.

Hori horrela, esleituak ditudan gaikuntzez baliaturik,

AGINTZEN DUT:

Artikulu bakarra. Zerga-aitorpenak eta -autolikidazioak aurkezteko eta ordaintzeko epea, berez 2022ko apirilaren 20an bukatzekoa zena, luzatzea.

Luzatu egiten da zerga-aitorpenak eta -autolikidazioak aurkezteko eta ordaintzeko epea, azken eguna 2022ko apirilaren 20a zuena, eta bukaera-eguna 2022ko apirilaren 25era aldatzen da.

Azken xedapen bakarra.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra, legean bertan aurreikusitako eraginekin.

Iruñean,

EKONOMIA ETA OGASUNeko KONTSEILARIA

Elma Saiz Delgado